# 182 EREDUA AURKEZTEKO DISEINU FISIKO ETA LOGIKOAK

## ERREGISTROEN AZALPENA

Aitortzaile bakoitzeko, bi erregistro mota desberdin sartuko dira. Horiek lehen posizioagatik bereiziko dira irizpide hauen arabera:

**1. mota: Aitortzailearen erregistroa:** Identifikazio datuak eta aitorpenaren laburpena. 1. motako erregistroaren diseinua, eranskin honetan bertan aurrerago azaltzen dena

**2. mota: Aitortutako pertsona edo entitateen erregistro:** 2. motako erregistroaren diseinua, eranskin honetan bertan aurrerago azaltzen dena

Aurkezpenaren ordena erregistro motaren araberakoa izango da. 1. motarako, erregistro bakarra egongo da, eta 2. motarako, berriz, aitorpenean aitortzen diren pertsonak edo entitateak adina erregistro

Eremu alfanumeriko eta alfabetiko guztiak ezkerraldetik hasiko dira betetzen eta eskuinaldetik zuriunez beteak agertuko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

Hizkuntzaren karaktere bereziak adierazteko ISO-8859-1 kodeketa erabiliko da. Horrela, «Ñ» letra 209 ASCII balorea izango da (Hex. D1) eta «Ç» letra (zedila maiuskula) 199 ASCII balorea (Hex. C7).

Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen eta ezkerraldetik zeroz beteak agertuko dira, zeinurik gabe eta trinkotu gabe.

Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, edukia eremu guztiek izango dute. Edukirik ez badute, eremu numerikoak zeroz beteko dira, eta alfabetikoak eta alfanumerikoak bete gabe utziko dira.

Taldekako aurkezpena egiten bada (pertsona edo entitate aitortzaile bat baino gehiago artxibo berean) euskarriaren lehen erregistro moduan zero motako erregistro bat aurkeztuko da, aurrerago erregistro mota horretarako deskribatzen den diseinuari jarraituz. Horrek aurkezpena egiteaz arduratzen den pertsona edo entitatearen datuak jasoko ditu, eta derrigorrezkoa izango da pertsona edo entitate hori euskarrian aitortzaile bezala ere azaldu arren. Aurrenik, lehen aitortzailearen datuak jarriko dira (1. mota), eta haren aitortuak gero (2. mota); jarraian, hurrengo aitortzailearen datuak adieraziko dira, eta horrela hurrenez hurren.

**Azaroaren24ko 539/2023 Foru Aginduaren bidez eguneratua (GAO 2023/12/04).**

# 182 EREDUA

## 0 motako erregistroa:
## AURKEZLEAREN ERREGISTROA

| POSIZIOAK | IZAERA | EREMUEN AZALPENA |
|---|---|---|
| **1** | **Numerikoa** | **ERREGISTRO MOTA** |
| | | «0» konstantea (zeroa). |
| **2-4** | **Numerikoa** | **AITORPEN EREDUA** |
| | | «182» konstantea. |
| **5-8** | **Numerikoa** | **EKITALDIA** |
| | | Fitxategian sartu diren aitorpenen zerga ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira. |
| **9-17** | **Alfanumerikoa** | **AURKEZLEAREN IFZ** |
| | | Aurkezlearen IFZ jarriko da. |
| | | Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira. |
| **18-57** | **Alfanumerikoa** | **AURKEZLEAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIETATE IZENA** |
| | | 1. motako erregistroan pertsona edo entitate aitortzailearentzat adierazi den irizpide berberari jarraituz beteko da. |
| | | Inoiz ere ez da jarri behar eremu honetan izen komertzialik. |
| **58-109** | **Alfanumerikoa** | **AURKEZLEAREN HELBIDEA** |
| | | Eremu hau bedera tzi tan bana tzen da: |
| | | 58-59: SG: Kalearen siglak. |
| | | 60-79: Kalea: Kalearen izena. Alfabetikoa izan behar du eta, beraz, izenean zenbakiak dituena hizkiekin adieraziko da (adibidez: maiatzaren 1a, maiatzaren lehena idatziko da). Errepidea denean, km laburdura jarriko da bukaeran. |
| | | 80-84: Zenbakia: Etxearen zenbakia edo puntu kilometrikoa (dezimalik gabe). Numerikoa izan behar du, eta bost posiziokoa. |
| | | 85-86: Eskailera |
| | | 87-88: Oina |
| | | 89-90: Atea. |
| | | 91-95: Posta kodea: Aurkezlearen zerga helbideari dagokiona. Numerikoa izan behar du eta bost posiziokoa |
| | | 96-107: Udalerria: Hamabi posizio har tzen ditu. Izenak hamabi karaktere baino gehiago baditu, lehen hamabiak jarriko dira artikulu eta preposiziorik gabe |
| | | 108-109: Probintzia kodea: 2. motako erregistroan (aitortuen erregistroan) «probintzia kodea» eremurako adierazitako irizpide berberari jarraituz beteko da. Numerikoa. |
| | | Aitorpen honetan jarritako helbideak izaera informatiboa izango du bakarrik, eta inoiz ez da aitorpen espresutzat hartuko Zergen Foru Arau Orokorrak 48.3 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako. |
| **110-114** | **Numerikoa** | **AITORTZAILEAK, GUZTIRA** |

| | | |
|---|---|---|
| | | Bost posizioko eremu numerikoa. Taldekako fitxategian guztira zenbat pertsona edo entitate aitortzaile sartu diren adieraziko da (1. motako erregistro grabatuen kopurua). |
| **115-123** | **Numerikoa** | **AITORTUTAKO PERTSONA EDO ENTITATEEN ERREGISTRO KOPURUA**<br><br>Bederatzi posizioko eremu numerikoa. Taldekako euskarrian guztira zenbat pertsona edo entitate aitortzen diren adieraziko da. Kopuru horrek bat etorri behar du fitxategian sartutako pertsona edo entitate aitortzaileen 1. motako erregistroetan (136tik 144ra arteko posizioetan) adierazitako kopuruen baturarekin (2. motako erregistro grabatuen kopurua). |
| **124** | **Alfabetikoa** | **EUSKARRI MOTA**<br><br>Konstantea: «T» |
| **125-173** | **Alfanumerikoa** | **HARREMANETARAKO PERTSONA**<br><br>Harremanetarako pertsonaren datuak<br><br>Eremu hau bitan banatuta dago.<br><br>125-133: Telefonoa: Bedera tzi posizioko eremu numerikoa<br><br>134-173: Deiturak eta izena: 1. motako erregistroan persona edo entitate aitor tza ilearen tzat adierazi den irizpide berberari jarraituz beteko da. |
| **174-500** | | **ZURIUNEAK** |

* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz beteko dira.
* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko/alfabetikoak zuriunez beteko dira.
* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerraldetik zeroz bete behar dira.
* Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko/alfabetiko guztiak ezkerraldetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldetik zuriunez beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe.

# 182 EREDUA

## 1. motako erregistroa:

## AITORTZAILEAREN ERREGISTROA

| POSIZIOAK | IZAERA | EREMUEN AZALPENA |
|---|---|---|
| 1 | Numerikoa | **ERREGISTRO MOTA** |
| | | «1» konstantea. |
| 2-4 | Numerikoa | **AITORPEN EREDUA** |
| | | «182» konstantea. |
| 5-8 | Numerikoa | **EKITALDIA** |
| | | Aitortzen den zerga ekitaldiaren lau zifrak jarriko dira. |
| 9-17 | Alfanumerikoa | **AITORTZAILEAREN IFZ** |
| | | Aitortzailearen IFZ jarriko da. |
| | | Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira |
| 18-57 | Alfanumerikoa | **AITORTZAILEAREN IZENDAPENA** |
| | | Entitatearen izendapen osoa jarriko da, anagramarik gabe |
| | | Eremu honetan ezingo da inolaz ere merkataritza izenik jarri. |
| 58 | Alfabetikoa | **EUSKARRI MOTA** |
| | | Konstantea: «T» |
| 59-107 | Alfanumerikoa | **HARREMANETARAKO PERTSONA** |
| | | Harremanetarako pertsonaren datuak. Eremu hau bitan banatzen da: |
| | | 59-67: Telefonoa: Bedera tzi posizioko eremu numerikoa |
| | | 68-107: Deiturak eta izena: jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat, eta izen osoa, ordena horretan nahitaez. |
| 108-120 | | **ZURIUNEAK** |
| 121-122 | Alfabetikoa | **AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKO AITORPENA** |
| | | Bigarren aitorpena edo ordezko bat aurkezten denean, honako eremu hauetako bat beteko da derrigorrez: |
| | | 121: Aitorpen osagarria: «C» jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia lehendik aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen batean aipatu gabe utzi ziren emaileen erregistroak sar tze a bada. |
| | | 122: Ordezko aitorpena: «S» jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkezteko arrazoia ekitaldi berberari dagokion aurreko aitorpen bat baliogabetu eta bere osoan ordezka tze a bada ber tan datu okerrak adierazi direlako edo osatu gabe daudelako. Ordezko aitorpenak aurreko aitorpen bat bakarrik baliogabetu dezake |
| 123-135 | | **ZURIUNEAK** |

| | | |
|---|---|---|
| **136-144** | **Numerikoa** | **AITORTUTAKO PERTSONA EDO ENTITATEEN ERREGISTRO KOPURU OSOA**<br>Aitortzaile honentzat, fitxategian (2. motako erregistroan) guztira zenbat pertsona edo entitate aitortu diren jarri behar da. |
| **145-159** | **Numerikoa** | **EMAITZEN, DOAINTZEN, DOAKO ZERBITZU PRESTAZIOEN,LEGATUEN,ERABILERA MAILEGUEN, LANKIDETZA HITZARMENETATIK ONDORIOZTATUTAKO GASTU KENGARRIEN, EKARPENEN EDO XEDATZEEN ZENBATEKO OSOA ETA /EDO BALORAZIOA.**<br>Egindako eragiketen zenbatekoak adieraztean (2. motako erregistroko pertsona edo entitate aitortuen erregistroetako 84tik 96ra arteko posizioetan) jarritako zenbatekoen batura idatziko da eremu numeriko honetan (dezimalik gabe). |
| **160** | **Numerikoa** | **AITORTZAILEAREN IZAERA**<br>Pertsona edo entitate aitortzailearen izaera adierazten duen digitu numerikoa jarri behar da, zerrenda honen arabera:<br>1. Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauan, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga araubideari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzkoan, arautnutako entitateak.<br>3. Pertsona desgaituen ondare babestu baten administra - tzailea edo titularra, ondare hori perts na desgaituen ondarea babesteari buruzko azaroaren 18ko 41/2003 Legean araututa dagoenean. Ondare babestuaren titularraren IFZ, deiturak eta izena bete behar dira, administratzaileak aurkeztu gero.<br>4. Alderdi politikoa.<br>«8. Kultur mezenasgoaren hartzaile diren pertsonak eta entitateak, kultur mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzko otsailaren 11ko 2/2019 Foru Arauan eta Oinarrizko ikerketarako mezenasgoaren aldeko pizgarri fiskalei buruzko abenduaren 20ko 5/2022 Foru Arauan arautuak.»<br>9. Langileen sindikatua. |
| **161-169** | **Alfanumerikoa** | **ONDARE BABESTUAREN TITULARRAREN IFZ** |
| **170-209** | **Alfanumerikoa** | **ONDARE BABESTUAREN TITULARRAREN DEITURAK ETA IZENA** |
| **210-500** | | **ZURIUNEAK** |

* Zenbateko guztiak positiboak izango dira.

* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz beteko dira

* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko/alfabetikoak zuriunez beteko dira.

* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira bete tzen, eta ezkerraldetik zeroz beteko dira.

* Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko/alfabetiko guztiak ezkerraldetik hasiko dira bet tzen, eta eskuinaldetik zuriunez beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe

## AITORTUEN ERREGISTROA

| POSIZIOAK | IZAERA | EREMUEN AZALPENA |
|---|---|---|
| 1 | Numerikoa | **ERREGISTRO MOTA**<br>«2» konstantea. |
| 2-4 | Numerikoa | **AITORPEN EREDUA**<br>«182» konstantea. |
| 5-8 | Numerikoa | **EKITALDIA**<br>1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da |
| 9-17 | Alfanumerikoa | **AITORTZAILEAREN IFZ**<br>1. motako erregistroan posizio hauetarako adierazitakoa jarriko da. |
| 18-26 | Alfanumerikoa | **AITORTUAREN IFZ**<br>Aitortutako pertsona edo entitatearen IFZ jarriko da.<br>Pertsona fisikoa bada aitortuaren IFZ jarriko da.<br>Aitortua pertsona juridikoa edo errentak esleitzen dituen entitate bat bada (ondasun komunitatea, sozietate zibila, banatu gabeko herentzia, etab.), haren IFZ jarriko da.<br>Zerga izaera duten edo zerga alorrean garrantzitsuak diren harremanetan 14 urtetik beherako adingabeak identifikatzeko, 14 urtetik beherakoaren datuak jarriko dira (identifikazio fiskaleko zenbakia, barne), baita legezko ordezkariarenak ere.<br>Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira. |
| 27-35 | Alfanumerikoa | **LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ**<br>Jasotzaileak 14 urte baino gutxiago baditu, legezko ordezkariaren IFZ jarriko da eremu honetan (aita, ama edo tutorearena).<br>Era berean, aitortuak ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunak badira eta IFZrik ez badute, eremu honetan haien ordezkari tza duenaren identifikazio fiskaleko zenbakia adierazi behar da. Ordezkaritza horrek ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren foru arauak 10. artikuluan ezarritakoaren arabera emana behar du izan.<br>Eremu hau eskuinaldetik hasiko da betetzen, azken posizioa kontrol karaktereak hartuko du, eta ezkerreko posizioak zeroz beteko dira<br>Gainerako kasuetan, eremu honen edukia zuriunez beteko da. |
| 36-75 | Alfanumerikoa | **AITORTUTAKO PERTSONA EDO ENTITATEAREN DEITURAK ETA IZENA EDO SOZIETATE IZENA**<br>a) Pertsona fisikoak badira, jarri lehen deitura, tarte bat, bigarren deitura, tarte bat eta izen osoa, ordena horretan nahitaez.<br>Aitortua adingabea bada, adingabearen deiturak eta izena jarriko dira eremu honetan.<br>b) Aitortuak pertsona juridikoak edo errentak eslei tzen dituzten entitateak badira, haien sozietate izen osoa jarriko da anagramarik gabe |
| 76-77 | Numerikoa | **PROBINTZIA KODEA**<br>Aitortutako pertsona edo entitatea helbideratutako dagoen probintziaren edo, hala bada, hiri autonomoaren bi digitu numerikoak jarriko dira, honako zerrenda honen arabera:<br>ARABA ......................... 01 LEON ........................... 24 |

| | |
|---|---|
| ALBACETE .................... 02 | LLEIDA ......................... 25 |
| ALACANT ..................... 03 | LUGO ........................... 27 |
| ALMERIA ...................... 04 | MADRIL ....................... 28 |
| ASTURIAS .................... 33 | MALAGA ...................... 29 |
| AVILA ........................... 05 | MELILLA ...................... 52 |
| BADAJOZ ...................... 06 | MURTZIA ..................... 30 |
| BARTZELONA .............. 08 | NAFARROA ................. 31 |
| BURGOS ...................... 09 | OURENSE .................... 32 |
| CACERES ..................... 10 | PALENTZIA .................. 34 |
| CADIZ ........................... 11 | PALMAS, LAS ............. 35 |
| KANTABRIA ................. 39 | PONTEVEDRA ............. 36 |
| CASTELLO .................... 12 | ERRIOXA ..................... 26 |
| CEUTA .......................... 51 | SALAMANCA ............... 37 |
| CIUDAD REAL .............. 13 | S.C.TENERIFE .............. 38 |
| KORDOBA .................... 14 | SEGOVIA ..................... 40 |
| CORUÑA, A .................. 15 | SEVILLA ....................... 41 |
| CUENCA ....................... 16 | SORIA .......................... 42 |
| GIRONA ....................... 17 | TARRAGONA .............. 43 |
| GRANADA .................... 18 | TERUEL ........................ 44 |
| GUADALAJARA ............ 19 | TOLEDO ....................... 45 |
| GIPUZKOA .................... 20 | VALENTZIA .................. 46 |
| HUELVA ........................ 21 | VALLADOLID ............... 47 |
| HUESCA ....................... 22 | BIZKAIA ....................... 48 |
| BALEARRAK ................ 07 | ZAMORA ..................... 49 |
| JAEN ............................. 23 | ZARAGOZA .................. 50 |

**78** **Alfabetikoa** **GAKOA**

A. Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzko araudian ezarritako mezenasgoko lehentasunezko jarduera edo programetan sartzen ez diren emaitzak, dohaintzak ekarpenak eta doako prestazioak

C. Desgaituen ondare babestuari egindako ekarpenak.

D. Desgaituen ondarearen xedatzea.

E. Aitorpen informatiboan aipatzen den urte naturalean edo aurreko lau urteetan onuradunaren bizi beharrei aurre egiteko asmoz ondare babestura ekarritako diru gastua eta ondasun suntsikorren kontsumoa, ondasun edo eskubideen xedapentzat hartu behar ez direnak

«I. Kenkarirako eskubidea ematen duten emaitzak, dohaintzak, ekarpenak, legatuak eta gastuak, oinarrizko ikerketarako mezenasgoa xede duten lankidetza hitzarmenen ondorioz egindakoak.»

K. Dohaintzak eta legatuak, erabilera maileguak, eta lankidetza hitzarmenen ondorioz egindako gastu kengarriak, kultur mezenasgora bideratuak

R. Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga-pizgarriei buruzko araudian ezarritako lehentasunezko mezenasgo jarduera edo programetara bideratutako kopuruak.

S. Kuota sindikalak

T. Kargu politikoek alderdi politikoei egindako nahitaezko ekarpenak, PFEZaren 3/2014 Foru Arauko 22. artikuluko b) letran aipatuak.

V. Alderdi politikoetako afiliazio kuotak eta haien aldeko ekarpenak, PFEZaren 3/2014 Foru Arauko 92.2 artikuluaren arabera kengarriak

**79-83** **Numerikoa** **KENKARIAREN %**

5 posizioko eremu numerikoa. A, I, K eta R gakoekin identifikatutako zenbatekoei aplikagarria zaien kenkariaren portzentajea jarriko da eremu honetan, koma hamartarrik gabe. Gainerako gakoetan zuriuneak utziko dira.

Pertsona edo entitate batek egin dituen dohaintzei kenkari portzentaje desberdinak aplikatzen bazaizkie, idazpen independenteetan adieraziko dira.

A gakoa markatu bada (2. motako erregistroko 78. posizioa), eta dohain tza egin duen per tso na edo entitatea establezimendu iraunkorrik gabe jarduten duten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadun bada, kenkariaren oinarrian 150 eurotik gorako kopurua gaindi tzen duen zatiari zer kenkari portzentaje dagokion jarriko da. Kenkariaren oinarriak ez badu zenbateko hori gainditzen, zergadun horiei dagokienez aitortu beharko den portzentajea 49/2002 Legearen 19. artikuluan ezarritakoa izango da.

Eremu hau bitan banatzen da:

79-81: Dohaintzari aplikagarri zaion portzentajearen zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira
82-83: Dohaintzari aplikagarri zaion portzentajearen zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.

**84-96** **Numerikoa** **EMAITZAREN, DOHAINTZAREN, DOAKO ZERBITZU PRESTAZIOAREN, LEGATUAREN, ERABILERA MAILEGUAREN, LANKIDETZA HITZARMENETIK ONDORIOZTATUTAKO GASTU KENGARRIEN, EKARPENAREN EDO EGINDAKO XEDATZEAREN ZENBATEKOA ETA/EDO BALORAZIOA.**

13 posizioko eremu numerikoa. Emaitza, dohaitza, legatua, lankidetza hitzarmenetik ondorioztatutako gastu kengarria, ekarpena edo xedatzea diruzkoa izan bada, zeinurik eta zenbaki hamartarrik gabe jarriko da zein den haien urteko zenbatekoa, kenkari portzentaje berberari dagokiona.

Emaitzak, dohaintzak, legatuak, lankidetza hitzarmenetik ondorioztatutako gastu kengarriak, ekarpenak edo xedatzeak gauzazkoak diren kauetan, eta, orobat, doako zerbitzu prestazioetan eta erabilera maileguetan, kasuan kasuko araudiko arauen arabera kalkulatutako balorazioa adieraziko da.

E gakoa markatu bada (2. motako erregistroko 78. posizioa), gastatutako diruaren zenbatekoa eta kontsumitutako ondasun suntsikorren balioa adieraziko da

Aitortutako pertsonak edo entitateak hainbat gako dituzten eta kenkari portzentaje desberdinak aplikatzen zaizkien kopuruak ordaindu baditu, aitortutako pertsona edo entitateen erregistro independenteak beteko dira.

Zenbatekoak eurotan adierazi behar dira.

Eremu hau bitan banatzen da:

| | | |
|---|---|---|
| | | 84-94: Emaitzaren, dohaintzaren, doako zerbitzu prestazioaren, legatuaren, erabilera maileguaren, lankidetza hi zarmenetik ondorioztatutako gastu kengarrien, ekarpenaren edo xedatzearen zenbatekoari dagokion zati osoa. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira.<br>95-96: Emaitzaren, dohaintzaren, doako zerbitzu prestazioaren, legatuaren, erabilera maileguaren, lankidetza hitzarmenetik ondorioztatutako gastu kengarrien, ekarpenaren edo xedatzearen zenbatekoari dagokion zati hamartarra. Edukirik ez badu, zeroak jarriko dira. |
| **97** | **Alfabetikoa** | **GAUZATAN EGINDAKO EMAITZA, DOHAINTZA, DOAKO ZERBITZU PRESTAZIOA, LEGATUA, ERABILERA MAILEGUA, LANKIDETZA HITZARMENETIK ONDORIOZTATUTAKO GASTU KENGARRIA, EKARPENA EDO XEDATZEA.** |
| | | Emaitza, dohaintza, doako zerbitzu prestazioa, legatua, erabilera mailegua, lankidetza hitzar menetik ondorioztatutako gastu kengarria, ekarpena edo xedatzea gauza bidez egin bada, «X» bat jarriko da<br>Beste edozein kasutan, eremu hau zuriuneak izango dira<br><br>Pertsona edo entitate batentzat aitortzen diren emaitzak, dohaintzak, doako zerbitzu prestazioak, legatuak, lankidetza hitzarmenetatik ondorioztatutako gastu kengarriak, ekarpenak edo xedatzeak dirutan eta gauzatan egin badira, erregistro independenteetan adieraziko dira. |
| **98-104** | | **ZURIUNEAK** |
| **105** | **Alfabetikoa** | **AITORTUAREN IZENA** |
| | | Aitortutako pertsona edo entitatearen izaera adieraziko da, gako hauen arabera:<br><br>Gakoa Azalpena.<br>F: Pertsona fisikoa<br>J: Pertsona juridikoa.<br>E: Errentak eslei tzen dituen entitatea. |
| **106** | **Alfabetikoa** | **ERREBOKAZIOA** |
| | | A, I, K edo R gakoetarako (2. motako erregistroko 78. posizioa):<br><br>Aurreko ekitaldietan jaso eta kenkarirako eskubidea eman duen dohain tza bat ekitaldiaren barruan errebokatu bada, eremu honetan X jarri behar da eta errebokatutako dohaintzaren gainerako datuak adierazi. |
| **107-110** | **Numerikoa** | **ERREBOKATUTAKO DOHAINTZA EGIN ZEN EKITALDIA** |
| | | «Errebokazioa» eremuan X jarri bada, errebokatutako dohaintza zein ekitalditan egin zen adierazi behar da. Bestela, eremu honetan zuriuneak utziko dira. |
| **111** | **Alfabetikoa** | **ONDASUN MOTA** |
| | | C edo D gakoetarako, ondasun mota adierazi behar da:<br>I: Higiezina<br>V: Balore higigarriak.<br>O: Bestelakoak. |
| **112-131** | **Alfanumerikoa** | **ONDASUNAREN IDENTIFIKAZIOA** |

| | | |
|---|---|---|
| | | «Ondasun mota» eremuak edukia duenean, higiezinen kasuan finka zenbakia edo KEZ zenbakia (katastroko erreferentzia zenbakia) jarriko da, dagokionaren arabera; balore higigarrien kasuan, ISIN kodea jarriko da (baloreak identifikatzeko nazioarteko kodea) |
| **132** | **Numerikoa** | **EMAITZEN, DOHAINTZEN ESO EKARPENEN ERREPIKAPENA**<br><br>A gakorako (2. motako erregistroko 78. posizioa)<br><br>Establezimendu iraunkorrik gabe diharduten ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunen kasuan, eremu hau honako hauek kontuan hartuta beteko da:<br><br>1. Baldin eta aurreko bi zergaldietan aitortuak entitate berari emaitza, dohaintza edo ekarpen kengarriak egin badizkio, eta haien zenbatekoa, zergaldi horietako bakoitzean, aurreko ekitaldikoa edo handiagoa izan bada.<br><br>2. Baldin eta aurreko bi zergaldietan aitortuak entitate berari egin dizkion emaitza, dohaintza edo ekarpen kengarrien zenbatekoa ez bada izan, zergaldi horietako bakoitzean, aurreko ekitaldikoaren berdina edo handiagoa izan bada. |
| **133-500** | | **ZURIUNEAK** |

* Zenbateko guztiak positiboak izango dira.
* Edukirik ez duten eremu numerikoak zeroz beteko dira.
* Edukirik ez duten eremu alfanumeriko/alfabetikoak zuriunez beteko dira.
* Eremu numeriko guztiak eskuinaldetik hasiko dira betetzen, eta ezkerraldetik zeroz beteko dira
* Eremuaren azalpenean bestelakorik esaten ez bada, eremu alfanumeriko/alfabetiko guztiak ezkerraldetik hasiko dira betetzen, eta eskuinaldetik zuriunez beteko dira. Hizki larriak erabiliko dira, karaktere berezirik gabe eta bokaletan azenturik jarri gabe